

Zutabegileak

Joxean Agirre

Ezusteanean eta asteburu luze bat aurretik dela, zutabea tokatzen zai-zula jakinaraziz mezu bat iristen zaizunean formularen bat egon behar duela pentsatzen duzu ataka horretatik onik ateratzeko, Jeffrey Barnardek erabiltzen zuen hura esate baterako, “The Spectator” egunkarian zuen zutabea tarte-ka hutsik ateratzen baitzuen, ohar labur honekin: «*J. B. is unwell*», ez zegoela bere onenean, alegia. Nik ere horrelako zerbait egin nezakeen, baina, horretarako, Barnard izan behar da: hasteko, zutabeari goiburutzat “*Low life*” edo “Bizimodu golfoa” jarri beharko nioke, hark bezala, eta ez dirudi oso sinesgarria izan daitekeenik; gainera, eguerdi aldera altxatu beharko nuke egunero ohetik, eta ez da nire ordurik ohikoena, goizeko zazpietarako esnatzen bainaiz. Hark bai,

eguerdi aldera altxatu eta sendagilearen aginduz bitamina pastillak irensten baitzituen, baina Veuve Cliquot botila astinduz, eta, ondoren, Sohoko pub batera joaten baitzen bazkaltzera. Alkoholizatuta zegoen. Bi eskuetan hainbesteko dardara omen zuen non behatzen artean zuen zigarrokina ahora eramateko esku batarekin besteari eutsi behar izaten zion. Ez da nire kasua. Mezua jaso bezain pronto Azpeitira joan nintzen San Agustinen “Hiru lore beltz” etorkinei buruzko ikuskizun poetiko-musikal-militantea ikustera, eta, ondoren, bizpahiru garagardo edan eta gero, pentsatu nuen nik ere, beste batzuek bezala, idatz nezakeela zerbait etorkinez, indarkeria matxistaz, Gurtel kasuaz edo hainbeste interesatzen zaidan Kataluniako *procés* delakoaz, baina horretarako daude kazetari espezializa-

tuak eta horretarako daude egunkariko beste orrialdeak ere, eta, gainera, neure erlijioak debekatzen dit zutabe batean gai potoloei buruz jardutea. Horretan eta beste gauza askotan nire eredua Meyer Berger da, 50 urtean eta egunik hutsik egin gabe “The New York Times”-en gai xeheei buruz zutabe bat idatzi zuen gizona, salbu eta egun batean zuzendariak Al Caponeren kontrako epaiketa baten jarraipena egitera bidali zuen. 13 urterekin hasi zen idazten. Eserialdi batean 200 sagarretik gora jan zituen gizon bati buruz egin zuen bere lehen zutabea. Ez zuen gai transzendentalik jorratzen, baina haren zutabea agertzen ziren pertsonak pertsonaia bilakatzeko zituen. Ez dakit. Saninazioak dira eta hara joango naiz ea pertsonaia bilakatzeko moduko norbait aurkitzen dudana. •

Oporrak eta atsedena

Saioa Iraola

Oporretan? Bai, azkenean bai». Onartu behar dut atsedenean egunak iritsi aurretik, antsietatez bizi nintzela nahi eta iristen ez zirenean egun horiek. Eta inguruan, zorionez, egun batzuk jai hartzeko aukera izan dutenak ere halatsu sentitu ditut... Eta hurrengo galdera honakoa da: «eta kanpora zoaz(te) ba?». Kanpoa eta etxea bereizten ditugu; askotan, bi horien arteko muga oso lausoa izan arren. Baina dudarik ez dago, han edo hemen, ederki aprobeztatzen ditudala atsedenean egunak; hondartzan eguzkipean izerditan blaitzeko, lagunekin patxadazko elkarriketak izateko, garagardoak edateko, paseoetarako, irakurtzeko, gosari maratonia-

noekin gozatzeko, larru jotze sosegatueta-rako... Eta deskonexio osoa sentitzeko nahiak bultzatuta, teknologiek eta sare sozialekin dudana harremana datorkit behin eta berriz burura: «gaur ez naiz Facebooken sartuko, eta Whatsapp ere egunean pare bat aldiz ikusiko dut...» ; baina aitortu behar dizuet ez naizela gai izan. Hala ere, behintzat ordenagailua hamabost egunetan ez dut piztu, testu hau idatzi arte, eta, behintzat, zerbait badela pentsatuta, lasaitzen dut nire burua. Badira hiru urte hilean behin zutabe haxe idatzeko proposamena onartu eta bideari ekin nionetik. Erronka gisa izan dut egin beharra, eta, idatzeko abilezia

gehiegirik gabe, gogoz aritu naiz nire pentsamendua, hausnarketak eta lotura/zubiak eraikitzen. Askotan gauza asko esan nahi, guztia ezin esan eta ideiak aukeratzeko; azkenaldian, berriz, dena esanda dudala sentituta, hitzak nondik atera ezinda; batzuetan, idatzitakoaren lasai, eta, maiz, berriz, urduri. Askotariko uneak izan ditut, baina ariketa interesgarria eta aberatsa izan da. Mila esker Amagoia aukera hau eskaintzematik eta bereziki, zuei, irakurleei. Askok eskertzen ditut egin dizkidazuen kuku txikiak. Horrenbestez, oporren ostean atsedenean segituko dut plaza honetan. Deskantsu uneak eta batzuen isilunak behar direlako, beste batzuen ahotsa entzunarazteko. Izan ongi. •